* nº 20.zbk * azaroa/noviembre * 2017

**2.** Donostia zentroaren 50. urteurreneko ospakizuna
Celebración 50 Aniversario centro Donostia

**4.** Zentruetako ekitaldiak
Actividades de Centros

**14.** Familientzako informazioa
Información para las familias

**17.** Langileentzako informazioa
Información para el personal

# ULIBERRI

ULIAZPIREN BERRIAK LAS NOTICIAS DE ULIAZPI

ULIAZPI






# DONOSTIA ZENTROAREN 50. URTEURRENEKO OSPAKIZUNA

Atzo, 2017ko maiatzak 31, Donostia Zentroan oso egun berezia eta hunkigarria bizi izan genuen. Villa Uliazpi eta, beraz, Donostia Zentroa bera eta zerbitzu osoa abian jarri genueneko 50. urteurrena ospatu genuen.

Ospakizun honetan ilusio handiak jarriak genituen, asteak generamatzan prestakizunak, bilerak... egiten, eta erantzuna ezin hobea izan zen. Ehun lagunek baino gehiagok, aspaldiko lankideak eta egun Uliazpin lan egiten duten langileak batuta, elkarrekin berriro egoteko eta bitxikeriak eta bizipenak partekatzeko aukera izan genuen.

Ekitaldiari hasiera emateko, mahai-inguru bat egin zen eta, bertan, ondoko parte-hartzaileak izan genituen: Paúl Zubillaga Dk., José Luis Basoko, Mª Luisa Balenciaga eta Edurne Ugarte, eta moderatzaile gisa, berriz, Arantza Aguiriano aritu zen. Ez dago inor hoberik kontatzeko nolakoak izan ziren hasierako urte zail haiek, adore eta ahalegin handikoak, baina batez ere ilusioz eta itxaropenez beteak, zalantzarik gabe Uliazpi gaur egun dena izateko zutabe eta oinarri izan zirenak. !Zer poza ematen duen haiei entzuteak! Zenbat oroitzapen! Haiei denbora gehiagoan entzuteko gogoz geratu ginen denak.

Gero, omenaldi txiki bat egin genion Gloria Álvarezi, Uliazpin

Ayer, 31 de mayo de 2017, en el Centro Donostia se vivió una jornada muy especial y emotiva. Celebramos el 50 aniversario de la puesta en marcha de villa Uliazpi y, por tanto, del Centro Donostia y de todo el servicio.

Era mucha la ilusión puesta en esta celebración, con semanas de preparativos, reuniones… y la respuesta fue inmejorable. Más de cien personas, entre antiguos compañeros/as y personal actual que desempeña su labor en Uliazpi, tuvimos la oportunidad de reencontrarnos y compartir anécdotas y vivencias.

El acto comenzó con una mesa redonda en la que tomaron parte: el Dr. Paúl Zubillaga, José Luis Basoko, Mª Luisa Balenciaga y Edurne Ugarte, actuando como moderadora Arantza Aguiriano.








# CELEBRACION 50 ANIVERSARIO CENTRO DONOSTIA

arreta jasotzen denbora gehiena egin duten erabiltzaileen ordezkariari, baita Paúl Zubillagari ere, dedikazioz eta konpromisoz beteriko hainbat urtez zentroko mediku izan denari. Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Publikoen Zuzendari Nagusi Elena Basagoitiak plaka oroigarri bat eta lore bat eman zizkien biei, eta horrez gain, agurra dantzatu zieten Asunek eta Maiderrek, biak ere Donostia Zentroko zaintzaileak.

Festa amaitzeko, aperitibo bat eskaini genuen zentroko lorategietan, eta horrela, aukera ezin hobea bilakatu zen berriro elkarrekin egoteko eta oroitzapenak partekatzeko, aspaldiko ezagunekin hitz egiteko eta Uliazpin egin dugun ibilbideko urte hauek guztiak ospatzeko.

Zorionak historia honetako atzoko eta gaurko parte-hartzaile guztioi. Beste 50 urte gehiago bete ditzagula!

Nadie mejor que ellos para hablarnos de aquellos comienzos, duros, cargados de tensión y esfuerzo, pero sobre todo, de ilusión y esperanza, y que fueron sin duda, la base, los pilares de lo que hoy en día es Uliazpi. ¡Qué gusto da oírles! ¡Cuántos recuerdos! Todos nos quedamos con ganas de estar más tiempo escuchándoles.

Continuamos con un pequeño homenaje a Gloria Álvarez, como representante de las personas usuarias que llevan más tiempo atendidas por Uliazpi, y a Paúl Zubillaga, médico del centro por tantos años de dedicación y compromiso. A ambos se les hizo entrega, por parte de Elena Basagoitia, Directora de Organismos Públicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de una placa conmemorativa y una flor, además del agurra, bailado por Asun y Maider, cuidadoras del Centro Donostia.

La fiesta finalizó con un aperitivo en los jardines del centro, la oportunidad perfecta para reencontrarnos y compartir recuerdos, saludar a viejos conocidos y celebrar todos nuestros años de andadura en Uliazpi.

Zorionak a todos los que ayer y hoy formamos parte de esta historia. ¡Por otros 50 años más!

DONOSTI

# 50 urteurrena Jaia
# Fiesta 50 aniversario





Uztailak 11an, Donostia Zentroko jaia ospatu dugu, eta aurten, gainera, arrazoi gehiagorekin, Villa Uliazpiren 50. urteurrena ospatzen ari garelako.

Egun biribila atera zen, eta oso egitarau osatua eta aberatsa izan genuen. Goizari hasiera emateko, Ulijaia etorri zen, kalejira bat bere trikitilari eta buruhandiekin eta jende ospetsuena bezalako photocall batekin, baina askoz ere dibertigarriagoa.

Gero, bazkari benetan bikaina dastatu ahal izan genuen, gure sukaldari taldeak maitasun guztiarekin prestatua. Gainera, postreetan geundenean, unerik hunkigarrienetako bat bizi ahal izan genuen; izan ere, gure kideetako batzuek hainbeste urtetako lana eta dedikazioa eskertu nahirik, hitz batzuk irakurri zizkioten Edurneri, zentroko gure arduradunari, erretiroa hartzera baitoa aurten (batek baino gehiagok malkoak isuri genituen).



Arratsaldeari jarraipena emateko, “Ulitxiki” taldeak emanaldi kuttun bat eskaini zigun, denok hunkitu gintuena, eta eguna amaitzeko, berriz, karaokea izan genuen, eta nahiz batzuk tonutik irten ginen, denok barre egin genuen, dantzan aritu ginen eta atzoko nahiz gaurko arrakasta handiak abestu genituen.

Azken batean, oso egun biribila izan zen, denok beti gogoan edukiko duguna.

!Zorionak Uliazpiri eta munduko zorionik handiena Edurneri, hastera doan garai berri horretarako!

El martes día 11 de julio hemos celebrado la fiesta del Centro Donosti, este año además, con más motivo si cabe, ya que conmemoramos el 50 aniversario de villa Uliazpi.

Fue un día redondo, en el que hubo un programa muy completo y variado. Comenzamos la mañana con la llegada de Ulijaia, kalekira con trikitilaris, cabezudos, y un fotocall como el de los famosos, pero mucho más divertido.

Después pudimos degustar una comida riquísima, preparada con todo el cariño por nuestro equipo de cocineras. Además, cuando ya estábamos con el postre, pudimos vivir uno de los momentos más emotivos, y es que varios compañeros leyeron unas palabras para agradecerle tantos años de trabajo, entrega y dedicación, a Edurne nuestra responsable de centro, que este año se jubila (las lágrimas se nos saltaron a más de uno).

La tarde comenzó con una entrañable actuación del grupo “Ulitxiki” que nos cautivó a todos, y acabamos el día con un karaoke en el que, aunque desefinamos un poquito, también nos reímos, bailamos y pudimos entonar grandes éxitos de ayer y de hoy .

En definitiva un día muy completo y para el recuerdo de todos nosotros.

!Zorionak Uliazpi y toda la felicidad del mundo para esa nueva etapa que comienza Edurne!









# HOMENAJE A: CARMEN SANTESTEBAN "SANTES" OMENALDIA

Askok ezagutu zuten. Uliazpin lan egin zuen 80ko hamarralditik erretiroa hartu zuen arte. Bera zen "GOBERNANTA", lanean gozatzen zuen emakume bat, adore handikoa, atsegina, alaia, beti baikorra, gauzak esaten eta pertsona bakoitza bere tokian jartzen zekiena, ezkerreko esku ona zuen eta inor ez zen harekin sumintzen.

Uliazpiko zentro guztietan lan egin zuen eta haren lana asko estimatzen zuten bai profesionalek eta bai familia guztiek ere. Beti erne eta prest egoten zen telefonoan, edozein unetan laguntzeko edo aholkuak emateko. Sebasek, haren senarrak, bazekien garrantzitsuena lana zela.

Santes joan zitzaigun, gehienontzat goizegi. Gauza asko geratu dira denon gogoan, baina batez ere haren irribarre beti iraunkorra, begirada beti alai eta bizia, eta denok zaintzeko eta babesteko modu berezi hori.

Mila esker zu ezagutzeko aukera eskaini diguzulako.

Lerro hauetatik Uliazpik besarkada bat luzatu nahi dio haren familiari, asko maite zuen.

Beti gogoratuko zaitugu zinen moduan. "SANTES".

Son muchos los que la conocieron. Trabajó en Uliazpi desde los años 84 hasta su jubilación. Era la "GOBERNANTA", una mujer que disfrutaba trabajando, resolutiva, amable, alegre, siempre positiva, sabía decir las cosas y poner a cada uno en su sitio, tenía mucha mano izquierda, nadie se molestaba con ella.

Trabajó en todos los centros de Uliazpi y su labor siempre fue muy apreciada por todos los profesionales y las familias. Siempre se podía contar con ella, estaba dispuesta al teléfono en cualquier momento para ayudar y aconsejar. Su marido Sebas ya sabía que lo primero era el trabajo.

La Santes se nos fue, para todos demasiado pronto. Nos deja para el recuerdo muchas cosas pero sobre todo esa sonrisa casi permanente, esa mirada siempre despierta y alegre y esa manera protectora de cuidar de todos.

Gracias por habernos dado la oportunidad de conocerte.

Un abrazo desde estas líneas desde Uliazpi a su familia, a la que adoraba.

Siempre te recordaremos como tú eras. "LA SANTES".



## DESPEDIDA A: ARANTZA, SAGRARIO, JOSEAN, EDURNE Y JOSI AGURGARRIA

Beste lankide batzuek irekitako bideari jarraituz, urte hasieran Arantzk,Sagrariok eta Joseanek erretiroa hartu dute. Urrian, Edurne eta Josis ere erretiroa hartu dute. Hainbat eta hainbat lankide elkartu ziren agurrean haiekin batera egoteko. Goza ezazue bizialdi berri honetan! Jator askoak zarete!

Siguiendo el camino abierto por otros compañeros, a principios de año se han jubilado Arantza, Sagrario y Josean. En octubre se han jubilado también Edurne y Josi. Un montón de compañeros se juntaron para acompañarles en su despedida. A disfrutar de esta nueva etapa. "Majetes".



FRAISORO

# Noain txikia
# Fiestas en Zizurkil



Urtea hasi denetik, Uliazpik parte-hartze handia izan du Zizurkilgo udalerrian hainbestean behin antolatu diren ekitaldi desberdinetan: inauterietako kalejiran, korrika txikian nahiz Erdi Aroko jaialdian, era horretan Adimen Urritasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatu baita.

Eremu inklusibo bat sortu da kultur mundura egokitua, eta aukera hori Udalaren eskutik iritsi zaigu, gure udalerriko Kultura Departamentuaren eskutik bereziki, eta hala, ekitaldi horietan parte hartzera gonbidatu gaitu eta gure neska-mutilak Zizurkilgoko gainerako gizarte osoarekin zuzeneko elkarreraginean aritu ahal izan dira.

Udalak babestutako ekimen hori, hain zuzen ere, udal mailako jardueretan parte hartuz gure artatuak gizarteratzeko prozesuaren parte da, eta horri esker, haiekin ohitu eta Adimen Urritasuna duten pertsonei buruz duten iritzia aldatzen lagundu dezake, beste edozein herritar gisa ikusiak izan daitezen lagunduz. Parte hartzeko gaitasunaren jabe jaiotzen gara denok; horretarako modua bakarrik aurkitu behar da.

Parte hartu duten hiru jarduera horiek ezin hobeto atera dira, ederki pasatu dute hori eginez, eta are emozioz gainezka ibili dira; eta gainera, musika onarekin, bazkari on batekin eta konpainia hobearekin amaitu zituzten jarduerak, eta hurrengo batean herriko jaietan berriro parte hartzea espero dugu; deitzen badigute, oso gustura joango bertara!

En lo que va de año Uliazpi lleva una participación importante en los eventos del municipio de Zizurkil de una forma puntual: en la **kalejira** de carnavales, en la **korrika txiki**, y en la **fiesta medieval**, fomentando así la participación de las personas con Discapacidad Intelectual.

Se ha creado un espacio inclusivo adaptado al mundo cultural, esta posibilidad ha llegado de la mano del Ayuntamiento, en concreto del Departamento de Cultura de nuestro municipio, invitándonos a participar y permitir a nuestros chavales  poder interactuar de una forma directa con el resto de la sociedad de Zizurkil.

Esta iniciativa apoyada por el Ayuntamiento forma parte del proceso de integración de nuestros atendidos en algunas actividades del pueblo familiarizándose con ellos y cambiando la concepción sobre las personas con Discapacidad Intelectual y que se vean como uno más en el pueblo. Todos nacemos con la capacidad de participar, solo hay que encontrar cómo.

Las tres actividades en las que han  participaron han sido todo un éxito disfrutando del momento, incluso emocionándose, acabaron los eventos con buena música, buena comida, buena compañía, esperando que la siguiente podamos tomar parte en las fiestas patronales, si nos llaman iremos muy a gusto!!














# TRUKE-EGITARAUA FRANTZIAREKIN



Tolosako Inmakulada ikastetxeak, iaz egin zuen bezala, ikasle-truke bat egin du Frantziako Le Mans hiriko ikastetxe batekin.

Lyceé Professionell Joseph Rousell ikastetxearekin trukea egiteko ideia Inmakulada ikastetxean bertan sortu zen. Ikusirik hezkuntza eta praktikaren alorrean antzeko ikastetxe bat dela, eta bertako ikasleak pertsonei laguntzeko, zerbitzatzeko eta zaintzeko gizarte-modulu bat egiten ari direla

Praktika-aldia hiru astekoa izango da.

Inmakulada ikastetxeari Fraisoro eskola etorri zitzaion burura esperientzia hori gauzatu ahal izateko, duela urte batzuk badirelako Fraisoro eskolak Inmakulada ikastetxeko ikasleak hartzen dituela praktika-aldia bertan egiteko, eta beti oso harreman estua izan dugulako bi erakundeok.

Frantziako ikasleek oso balioespen baikorra egin dute praktika-aldi horretan egin duten lanari buruz. Errepikatuko dugu.



# PROGRAMA DE INTERCAMBIO CON FRANCIA

El colegio la Inmaculada de Tolosa , al igual que el pasado año, ha realizado un intercambio con alumnos de Le Mans, Francia.

La idea del intercambio nace del propio colegio la Inmaculada con el Lyceé Professionell Joseph Roussell. Viendo que este es un centro similar en la parte educativa y práctica y que los alumnos estan cursando un modulo social en acompañamiento, servicios y cuidado a la persona, les pareció que daban el perfil idóneo para poder hacer ese intercambio y así conseguir que la persona se enriquezca tanto personal como profesionalmente y que vea y comparta diferentes técnicas de aprendizaje y metodologías de trabajo.

El periodo de practicas es de tres semanas.

La Inmaculada pensó en el centro Fraisoro para poder llevar a cabo esta experiencia, ya que desde hace años Fraisoro ha acogido a alumnos de la Inmaculada en periodo de prácticas y siempre ha habido una relación muy estrecha entre ambas entidades.

Los alumnos franceces han valorado de forma muy positiva el trabajo que han desarrollado en las prácticas. Repetiremos.

ZUBIETA

# Endanea Proiektua
# Proyecto Endanea





Zentrotik Endaneako kudeaketa-arduradunetako batekin harremanetan jarri ginen, beren instalazioetan berotegi-lanetarako lankidetza-proiektu bat proposatzeko. Erkidegoan lan bat burutzeko aukera bezala ikusi genuen.

Zentroko 3 erabiltzailek eta zaintzaile batek osatutako taldea bertan txertatzea zen asmoa, astean 2 orduko dedikazio batez berotegiko lan desberdinak egin zitzaten. Zentrotik zeregin desberdinak probatuko genituen, berotegian zituzten premien arabera. Guk ebaluatu genuen zeregina, hori egiteko beharko zituzten gaitasunak kontuan izanik, eta hautagai desberdinekin proba egin genuen, lan horiek betetzeko pertsonarik egokienak zein izango ziren ikusteko (gustura egon zitezela, batez ere). Koordinazio-lanak, berriz, zaintzaileak (Koldo Arrieta eta Cristina Castaño), berotegiko arduradunak eta zentroak egingo zituzten elkar hartuta.

2017ko ekainean gaude eta jarduera horrekin aurrera jarraitzen dugu. Erabiltzaileen taldea aldatzen joan da, pertsonak zereginaren arabera egokitzen joan garelako. Une honetan, langileak lehengo berak dira. Oso pozik joaten dira, eta bertan dauden beste langile batzuekin harremanetan egoten dira. Berotegian egiten ditugun lanak hauek izan daitezke: landareen mantenimendua, loreen inaustea, biltegiratzea, lan eremuen garbiketa,…

Parte hartzen ari diren guztiek dagoeneko bereganatua dute laneko arropak janzteko dinamika, berotegiko langileak (Aitor, Iñigo...) agurtzen dituzten bitartean, eta haiekin oso harreman ona dute; lanen bat bi pertsonaren artean egin behar izanez gero, bertako langileek askotan eskatzen diote laguntza gure neska-mutiletako bati. Langileen artean sortu diren harreman berri hauengatik, eta lan emankor bat egiten ari diren sentsazioagatik, denak irrikaz egoten dira asteazkena noiz iritsiko, ENDANEAra joan ahal izateko.

Desde el centro nos pusimos en contacto con uno de los responsables de la gestión de Endanea para proponerles un proyecto de colaboración en tareas de invernadero en sus instalaciones. Lo vimos como una oportunidad de realizar un trabajo en la comunidad.

La idea fue la de incluir a un grupo de 3 usuarios del centro que junto con un cuidador pudieran hacer distintas tareas de invernadero en dedicación de 2 horas a la semana. Desde el centro evaluamos la tarea en base a las habilidades que se necesitaban para ejecutarla y probamos con distintos candidatos para ver que personas serían las más indicadas ( que disfrutaran sobretodo) .La coordinación se llevaría a cabo entre el cuidador (Koldo Arrieta y Cristina Castaño) , el encargado del invernadero y el propio centro.



Estamos a junio del 2017 y seguimos con la actividad. El grupo de usuarios ha ido variando hasta adecuar las personas a la tarea. En estos momentos el personal sigue siendo el mismo. Van muy contentos, se relacionan con otros operarios que están allí .Las tareas que hacemos en el invernadero son: mantenimiento de plantas, poda de flores, almacenaje, limpieza de las zonas de trabajo,…

Todos los que participan ya tienen la dinámica de ponerse la ropa de trabajo, mientras aprovechan para saludar a los trabajadores del invernadero (Aitor, Iñigo,..) con los que tienen muy buena relación, si hay algún trabajo que hay que hacer entre dos personas, los trabajadores piden ayuda a alguno de nuestros chicos. Estas nuevas relaciones interpersonales entre los trabajadores, unida a la sensación de hacer algo productivo, es lo que hace que todos estén deseosos de que llegue el miércoles para ir a ENDANEA.









**Cristina Castañok beharrezko laguntza eskaintzen die erabiltzaileei jarduera hori egiteko, eta berak egin ditu bitartekaritza-lanak, beste langile batzuekin eta enpresarekin harreman on batzuk finkatzeko.**

*“Parte-hartzaileek beren Bizi Planetan jasoa dute zein garrantzitsua den berentzat jarduera hori egitea, dela zentrotik kanpoko beste pertsona batzuekin harremanak dituztelako, dela lanagatik beragatik, dela bi arrazoi horiengatik.*

*Gure asmoa jarduera horrekin aurrera jarraitzea da; gurekin harremanak dituzten pertsona batzuen ikuspegia zertxobait aldatu dugu, “ezin dute egin” pentsatzetik “egiteko gauza dira, beharrezko laguntzak izanez gero” pentsatzera aldatu direlako”.*

**Cristina Castaño es la facilitadora que da el apoyo necesario a los usuarios para realizar la actividad y la que ha mediado para establecer buenas relaciones con otros operarios y la empresa.**

*“Los participantes en sus Planes de Vida, tienen recogidos lo importante que es para ellos dicha actividad, uno por la relación con otras personas, fuera del centro, otro por el propio trabajo en sí y en el otro caso por las dos cosas.*

*Nuestra intención es la de seguir con la actividad, hemos cambiado un poco la visión de algunas personas que ahora se relacionan con nosotros, cambiando la idea de “no pueden hacer” a “son capaces con los apoyos necesarios”*

## JUBILACION: IÑAKI MUJICA Y ANA ORTIZ ERRETIROAK

Zubieta eta Fraisoroko gure mediku Iñaki Mujikak, gure neska-mutilei arreta eskaintzen hainbeste urte egin ondoren, erretiroa hartu du!

Hitz hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu lanean eskainitako dedikazio guztiagatik eta zortea opa diogu.

Ana Ortiz erretiratu zen eta, hori ospatzeko, afari bat egin genuen Hondarribian. Badakigu asko gozatzen ari dela aro berri honetan eta onena opa diogu.

Gure aldizkariko kolaboratzaileetako bat izan zen Ana hasiera-hasieratik. Mila esker zure laguntzagatik

Nuestro Doctor Iñaki MujiKa, médico de Zubieta y Fraisoro, que ha dedicado tantos años a la atención de nuestros chicos, ¡se ha jubilado!

Queremos desearle y agradecerle con estas palabras toda su dedicación al servicio.



Ana Ortiz se jubiló y lo celebramos con una cena en Hondarribia. Sabemos que está disfrutando mucho de su nueva etapa y le deseamos lo mejor.

Ana colaboró en nuestra revista desde los comienzos. ¡Gracias por tu colaboración!

## MARIA EUGENIA MERINO, ZENTRO ALDAKETA

Irailaren 27an agur esan genion Mª Eugeniari, Zubieta Zentroan 18 urtez aritu ondoren. Emozio handiko eguna izan zen, eta oso bizia. Txanda-aldaketan, zentroko pertsona guztiek omenaldi txiki bat eskaini zioten, aurreskua eta guzti, elkarrekin egindako urte guzti hauengatik eskerrak emateko.

Aldez aurretik afari bat ere egin genuen Hondarribiko Ardora jatetxean.

Zorte on Donostia Zentroan egingo duzun ibilbide berrian, eta mila esker urte hauetan guztietan eskainitako dedikazio eta inplikazioagatik.



## MARIA EUGENIA MERINO, CAMBIO DE CENTRO

El 27 de Septiembre despedimos a Mª Eugenia después de 18 años en el Centro Zubieta. Fue un día muy emocionante e intenso. En el cambio de turno todas las personas del centro le rindieron un pequeño homenaje con “aurresku” incluido en agradecimiento a todos estos años compartidos.

Previamente se hizo una cena en el restaurante Ardora de Hondarribia.

Mucha suerte en esta nueva andadura en el centro Donosti y gracias por tu dedicación e implicación todos estos años.

ATEGORRIETA

# Jarduera berri bat Ategorrieta Zentroan: **Herri-Baratzea**

# Nueva actividad en el Centro Ategorrieta: **Huerto Urbano**

Udaberrian, zaintzaile talde bat herri-baratzeei buruzko hitzaldi batera joan zen eta, gero, lore-aska batzuk erostea erabaki genuen jarduera horri ekin ahal izateko.

Lurra, ongarria... erosi zen eta lehenengo cherry tomateak, tipulinak, kuiatxoak, mota desberdinetako letxugak, marrubiak, piperrak... Horrela hasi ziren Iñaki, Nerea, Toñi, Mª Eugenia, Juan Mari eta Aitor jarduera hau egiten eta eginkizun horretan aktiboki parte hartzen.Udan zehar baratzea bere fruituak eta pozak eman ditu.

Aurtengo irail honetan baratzea nahiko ziztrina dago, letxugak, piperrak, kuiatxoak, tipulinak, tomateak... atera ditugulako bertatik, eta oraindik ez dugulako beste ezer aldatu.

Oporretatik itzultzen garenean, berriro hasiko gara udazkenean egokitzen dena aldatzen, eta espero dugu gure artatuek berriro lagunduko digutela eta "gure lurreko produktuak" landatzen, hazten eta biltzen ederki pasatuko dutela.



En primavera un grupo de cuidadores fueron a una charla sobre huertos urbanos y posteriormente nos animamos a comprar unas jardineras para iniciar la actividad.

Se compró tierra, abono y se comenzó a plantar los primeros tomates cherrys, cebolletas, calabacines, lechugas de diferentes clases, fresas, piperras,…Es así como Iñaki, Nerea, Toñi, Mª Eugenia, Juan Mari o Aitor, empezaron a realizar esta actividad, colaborando activamente en ella. Durante el verano la huerta ha dado sus frutos y muchas alegrías.

A la vuelta de vacaciones, de nuevo comenzaremos a plantar lo que toca en otoño, esperando que nuestras personas atendidas, de nuevo, colaboren y disfruten con la plantación, el crecimiento y la recogida de "nuestros productos de la tierra".



## ELENA ETA MARI SOLEN AGURRA

**Joan den irailaren 22an Ategorrieta Zentroan agur esan genien Elena Chavarriri eta Mari Sol Ibargureni. Elena badoa Zubieta Zentroko Arduradun gisa eta Mari Solek, berriz, zorioneko erretiroa hartu zuen joan den urriaren 15ean. Onena opa diegu Ategorrieta Zentroko gure bi lankideoi.**



## DESPEDIDA DE ELENA Y MARI SOL

El pasado 22 de septiembre tuvimos en el Centro Ategorrieta la despedida de Elena Chavarri y la de Mari Sol Ibarguren. Elena se marcha como Responsable del Centro Zubieta y Mari Sol se jubiló felizmente el pasado 15 de octubre. Les deseamos lo mejor a nuestras compañeras del Centro Ategorrieta.

# Atseden zerbitzua 2017
# Servicio de respiro 2017



Aurten 25 familiari eskaini zaie zerbitzu hori. Jarduerei dagokienez, komunitatearekin zerikusia edukiko luketen jarduera guztiak sustatzen ahalegindu gara, eta alde horretatik, ondoko ekintzak egin ditugu: irteerak herriak bisitatzera: Oiartzun, Hondarribia (Guadalupe), Orio, Garbera Merkataritza Gunea, Zurriolako hondartza... ; irteerak askaldegietara: Ulia, Igeldo, Listorreta,...; bisitak inguruetara: Bulebarra, Sagues, Donostiako Alde Zaharra, Ondarreta, Donostiako Portua, Gros, Haizeen Orrazia, Zurriola, Txofre, Kursaal; bisitak museoetara: San Telmo, Planetariuma, Real Sociedad eta Donostiako Aquariuma, Getariako Balentziaga Museoa; erosketak Garberan eta Urbilen; txangoak inguruetara, garraio publikoa erabiliz; paseoak Orioko txu-txu trenean, Donostiako Atrakzio Parkera Funikularrean igo, itsasontziz Hendaiara eta Pasaiara joan; Aste Nagusiko su artifizialak; bazkariak eta afariak inguruko zenbait jatetxetan; hipika, paseoak auzoan barrena...

Zentroan ondorengo jarduera hauek egin ditugu: Musikoterapia, eskulanak, jolasak baloiarekin, etxeko lanetan lagundu, musika entzun, telebista ikusi, mahai-jokoak, lepokoak eta eskumuturrekoak egin, manikura, sukaldaritza eta/edo gozogintza,...

Bai familiek eta bai artatuen talde batek eta aurten lanean aritu diren langileek ere aurtengo Atseden Zerbitzuari buruz egin duten balioespena baikorra izan da. Urtero bezala, proposatutako hobekuntza ekintzak martxan jarriko ditugu.

Este año se ha prestado el servicio a 25 familias. En cuanto a las actividades, se ha intentado potenciar todas aquellas actividades que tuviesen que ver con la comunidad, en este sentido se han realizado: salidas a visitar pueblos: Oiartzun, Hondarribia (Guadalupe), Orio, Centro Comercial Garbera, playa de la Zurriola,.. ; salidas a merenderos: Ulía, Igueldo, Listorreta,..; visitas por los alrededores: Boulevard, Sagües, Parte Vieja de Donosti, Ondarreta, Puerto de Donosti, Gros, Peine de los Vientos, Zurriola, Chofre, Kursaal; sisitas a museos: San Telmo, Planetarium, Real Sociedad y Aquarium de Donostia, Balentziaga de Getaria; compras en Garbera y Urbil; paseos por los alrededores utilizando transporte público; paseo en tren chu-chu de Orio, subida al Parque de Atracciones de Donostia en el Funicular, pasar en barco a Hendaia y Pasaia; fuegos artificiales de Semana Grande; comidas y cenas en diversos restaurantes de la zona; hípica, paseos por el barrio,…

En el centro se han realizado las siguientes actividades: Musicoterapia, actividades manuales, juegos con el balón, colaboración en las tareas del hogar, escuchar música, ver la televisión, juegos de mesa, elaboración de collares y pulseras, manicura, cocina y/o repostería,…

La valoración del Servicio de Respiro de este año que han realizado, tanto las familias, como un grupo de personas atendidas y el propio personal que ha trabajado este año, ha sido positiva. Como todos los años, incoporaremos acciones de mejora que nos han propuesto.





# ZUBILLAGA



## JULIAN ARAMBURU
## UDALEKUAK COLONIAS

*Atsegin duzu udalekuetara joatea?*

- Bai, asko.

*Urtero joaten zarete?*

- Bai, behin Bergarako Uliazpirekin eta beste behin udan Txolarterekin.

*Konta iezadazu zerbait udalekuei buruz.*

- Lehenik, Irunberriko Arroiletara joan ginen eta ibilalditxo bat egin genuen ibai-bazterretik. Bigarren egunean ibilbide luzea egin genuen Kakuetako arroilatik eta ur-jauzi izugarri batera iritsi ginen, eta amaieran haitzulo bat zegoen. Hirugarren egunean La Verna izeneko leizean sartu ginen; munduko haitzulorik handiena da. Amaitzeko, Esa urtegiko terma naturaletan bainu bat hartu eta lokatzetan blai jarri ginen. Aurten Cares izeneko ibilbidea egin nahi dugu Asturiasen eta egunen batean hondartzara joan.Argazkian Ane, Juanjo, Javi Vicente, Aitor eta ni ageri gara.

*¿Te gusta ir de colonias?*

- Sí, mucho.

*¿Vais todos los años?*

- Sí, una con Uliazpi de Bergara y otra en verano con Txolarte.

*Cuéntame algo de estas colonias.*

- Primero fuimos a la Foz de Lumbier e hicimos una caminata por el río. El segundo día fue un recorrido muy largo por el desfiladero de Kakueta y llegamos a una cascada muy grande y al final una cueva. El tercer día estuvimos en la cueva La Verna, la cavidad subterránea más grande del mundo. Para acabar nos bañamos y nos pusimos todos de barro en las termas naturales del pantano de Yesa. Este año queremos ir a la ruta del Cares en Asturias y algún día a la playa. Los de las fotos son Ane,Juanjo, Javi Vicente, Aitor y yo.



## IGERILEKUAN
## PISCINA

Igerilekuan egiten dugun jarduerari buruz oso iritzi dugu denok, batez ere mugikortasun murritza duten pertsonek edo erabiltzaileek; izan ere, normalean egiterik ez dugun mugimenduak egiteko eta sentsazioak edukitzeko aukera topatzen dugu uretan. Hori dela eta, astean bitan urte osoan zehar, eta hilean behin span, Bergarako udal igerilekuetan bainatzen gara, eta ederki gozatzen dugu bertan eskaintzen dizkiguten aukera guztiekin.







Nuestra actividad de piscina es muy valorada por todos nosotros, especialmente las personas o los usuarios con movilidad reducida, ven en el agua la posibilidad de disfrutar de movimientos y sensaciones que normalmente no tienen. Por eso dos veces a la semana durante todo el año y una vez al mes en el spa nos bañamos en las piscinas municipales de Bergara donde disfrutamos de todas las posibilidades que nos ofrecen.

EGOGAIN



# "Munduko lorerik handiena". **Soinuen mosaikoa.**

# La flor más grande del mundo: **Mosaico de sonidos**

Soinuen Mosaikoa izeneko egitasmoa EOS eta FEVAS erakundeen arteko 2009ko lankidetzari esker sortu zen eta Bilbon eta Donostian egindako zenbait tailerretan gauzatu zen. Lehen esperientzia hori "Soinuen Mosaikoa" proiektuarentzako abiapuntu izan zen, AEOS erakundeak (Asociación Española de Orquestas Sinfónicas), Plena Inclusión Konfederazioak eta BBVA Fundazioak elkarrekin sustatua.

2015. urtean, soinu-sormenari buruzko tailerretako jardueretan parte hartuko zuten EOSko musikariak definitu zituzten, eta 2016ko urtarrilean hasi ziren lanean, Gautena, Aspace eta Uliazpi erakundeen barruan dibertsitate funtzionala duten 19 pertsonarekin.

Tailerretan "Munduko lorerik handiena" landu dute; Jose Saramagoren ipuinean oinarrituta Emilio Aragónek idatzi duen musika-pieza bat da.

Mikel Cañada izan dugu proiektu horren sortzaile eta koordinatzailea, eta soinuak eta isiltasunak, jokaerak, begiradak, ukituak, irudiak eta testurak landu dituzte.

Haur baten kemenari esker berpiztu ondoren, "Munduko lorerik handiena" bihurtzeraino iritsi den lore baten antzera, musikak zuzenean bihotzeraino eta zentzumeneraino bidaiatu nahi du, aurreiritziak alboratuz, aukera berriak zabalduz, intransigentzia uxatuz, emozioak piztuz eta gure bizitzak –denonak, inolako salbuespenik gabe– alaituz.

Proiektu honetan parte hartu duten Uliazpiko gazteak hauek izan dira: Koro Alonso, Javier Gonzalez, Rafael Ruiz eta Mª Luisa Iturralde, eta denek ederki pasatu dute tailerretan, musikaren bidez esperimentatu ahal izan dute, emozioak adierazi... eta kontzertuak esperientzia handi baten modura bizi izan dituzte, opari bikain bat izan baita, horretan lagundu dietenekin partekatu ahal izan dutena... norekin eta "Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin". Bai alajaina!

A ze poza, antzeko proiektu berriren bat sortuko balitz!

Mila esker.

El inicio de Mosaico de sonidos surge con la colaboración de la OSE y FEVAS en 2009 materializándose en talleres desarrollados en Bilbao y San Sebastián. Esta primera experiencia fué el punto de partida para el proyecto **"Mosaico de sonidos"** puesto en marcha por **AEOS** ( Asociación española de Orquestas sinfónicas) la **Confederación Plena Inclusión** y la **fundación BBVA.**

Durante 2015 se definió los músicos de la OSE que participarían en las actividades de los talleres de creación sonora, comenzándose a trabajar en Enero de 2016 con 19 personas con diversidad funcional pertenecientes a Gautena, Aspace y Ulizapi.

En los talleres han trabajado sobre "la flor más grande del mundo", una pieza musical de Emilio Aragón basada en el cuento de José Saramago.

Mikel Cañada ha sido el creador y coordinador del proyecto, donde se ha trabajado con sonidos y silencios, actitudes, miradas, roces, imágenes y texturas.

Como una flor que renace gracias al tesón de un niño y se convierte en "la flor más grande del mundo" la música pretende viajar directa al corazón y a la razón, deshaciendo prejuicios, descubriendo posibilidades,



ahuyentando la intransigencia, emocionando y alegrando nuestras vidas, la de todos, sin exclusiones.

Los chicos de Uliazpi que han participado en el proyecto: Koro Alonso, Javier Gonzalez, Rafael Ruiz y Mº Luisa Iturralde han disfrutado con los talleres, han logrado experimentar con la música, expresar emociones,…y los conciertos los han vivido como una gran experiencia, un regalo compartido con el personal que les acompañaba…"nada menos que con la OSE".

Ojala, haya un nuevo proyecto similar.

Gracias.



# Familiako bizi-kalitatea Calidad de vida familiar



Familien Bizitza Kalitatea balioetsi ahal izateko proiektu bat abiarazi dugu Uliazpin. Proiektu hau Uliazpiko familiei laguntzeko Zerbitzuaren barruan kokatzen da, eta Gizarte Laneko praktikak egiten ari den Leire Campos ikaslea aritu da koordinazio-lanetan.

Bizitza Kalitatearen alderdi desberdinak balioetsi ahal izateko, inkesta bat prestatu zuten gure zerbitzuetan dauden eguneko zentroko erabiltzaileen familiei zuzendua.

Inkesta horretan hainbat alderdi balioetsi zituzten, hala nola ongizate emozionala, ongizate ekonomikoa, familiaren egokitzea (familiak nola onartzen duen eta nola egokitzen den urritasunera), osasunarekin loturiko alderdiak, familia barruko elkarrekintza (familien barruan sortzen diren harreman desberdinak ikustea), gizarteratzea eta parte-hartzea (gizarte-harremanak nola sortzen diren finkatzea) eta antolamendua eta gurasoen gaitasunak (familiakoen inplikazio-maila)

Hobetu daitezkeen eremuak finkatu ahal izateko azterketa horren bitartez hautemandako eremuak, hain zuzen ere, osasunaren eremua eta, bereziki, Adimen Urritasuna duten pertsonen sexualitatearekin zerikusia duten alderdiak izan dira. Eta beste alde batetik, antolamendua eta gurasoen gaitasunak.

Emaitza horiek ikusita, hobetzeko jarduera batzuk abiaraziko dira, eta zehazkiago, informazioa eta heziketa eskainiko zaie interesatuta dauden familiei Adimen Urritasuna duten afektibitate eta sexualitatearen inguruan.

Hemendik eskerrak eman nahi ditugu azterlan hau argitaratzeko aukera eman diguten pertsona guztien laguntzagatik, horiei esker Uliazpiren helburuetako bat bete ahal izango delako, hau da, Adimen Urritasuna duten pertsonen eta beren familien Bizitza Kalitatea hobetzen laguntzea.

Desde Uliazpi hemos promovido un proyecto para poder evaluar la Calidad de Vida Familiar .Este proyecto se enmarca desde el Servicio de apoyo a las familias de Uliazpi, y estuvo coordinado por Leire Campos, alumna en prácticas de Trabajo Social.

Para poder evaluar los diferentes aspectos dela Calidad de Vida, se elaboró una encuesta dirigida a las familias de usuarios de centro de día que están en nuestros servicios.

En la encuesta se valoraron aspectos como el bienestar emocional, el bienestar económico, la acomodación de la familia (cómo acepta la familia y cómo se adapta a la discapacidad), aspectos referentes a la salud, la interacción familiar (ver las diferentes relaciones que se crean en las familias), la inclusión y la participación (establecer cómo se crean la relaciones sociales) y la organización y las habilidades parentales (grado de implicación de los familiares.

Las áreas detectadas a través del estudio para poder establecer unas áreas de mejora han sido en el área de salud y en concreto los aspectos que tienen que ver con la sexualidad de las personas con d.i. Y por otro lado la organización y habilidades parentales.

A raíz de estos resultados se pondrán en marcha algunas acciones de mejora, más concretamente información y formación a las familias interesadas sobre afectividad y sexualidad en personas con D.I.

Desde aquí agradecer la colaboración de todas aquellas personas que han hecho posible que este estudio vea la luz y que se pueda cumplir uno de los objetivos de Uliazpi que es contribuir al desarrollo de la Calidad de vida de las personas con Discapacidad Intelectual y sus familias.



# SEXUALITATEA ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONENGAN

# SEXUALIDAD EN PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

Adimen-urritasunen bat duten pertsonengan sexualitatea oker eta modu murriztaile batean epaitzen duen gizarte batean bizi gara, eta horrek are gehiago zailtzen du normalizazioa. Egin dezagun hausnarketa-ariketa bat; zenbatetan ukatu izan dugu pertsona horiengan sexualitatea? Sarritan, beren bizi-zikloan sexu-premiarik ez duten haurrak bezala tratatuak izan dira, baina halaber, batzuetan ikusi izan dugu jendeak nolabaiteko beldurra duela haien sexu-jokabidea kontrolik gabekoa bihur dadin, eta are eritasun bezala ere ikusi izan da... Kontraesana, ezta?

Vivimos en una sociedad que suele juzgar de manera erronea y restrictiva la sexualidad en personas que tienen algún tipo de déficit intelectual, dificultando más su normalización. Hagamos un ejercicio de reflexión; ¿cuantas veces nos hemos observado negando la sexualidad en estas personas? A menudo son tratados como niños/as carentes de necesidades sexuales durante su ciclo vital pero, a la vez, también hemos advertido un cierto temores a que su conducta sexual se descontrole, considerándola incluso enfermiza… ¿Contradictorio, verdad?

Jar gaitezen haien larruan eta pentsa dezagun une batean guri edozein sexu-premia debekatzen digutela eta zigortu egiten gaituztela horregatik... nola sentituko ginateke? Zer egingo genuke horrekin loturik? Bai, burura datozkigun erantzun asko haiei helarazten dizkiegun okerreko jokabideen emaitza dira, eta ez diete jokaleku egokirik eskaintzen dituzten bizi-premietako bat naturaltasunez bete ahal izateko.

Gehiegizko babesak eta isolamenduak zaildu egiten dizkiete denontzat hain beharrezkoak diren gizarte-harremanak, edozein hurbilpen eragozten dielako eta beren premiak bete ahal izateko eremu pribatu bat eduki ahal izatea oztopatzen dielako.

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Adimen-urritasuna duten pertsonengan sexualitateak dituen ezaugarri nagusietako bat, hain zuzen ere, topatzen dugun heterogeneotasun zabala da. Zeren arabera agertuko dira desberdintasunak?

Lehenik eta behin, pertsonaren adimen-urritasun mailak baldintzatuko du, pertsona horrek duen minusbaliotasunaren maila eta motaren arabera desberdina izango delako sexualitatea bizitzeko modua.

Bigarrenik, pertsona horietako bakoitzak bizi dituen gizarte-baldintzek erabakiko dute bere sexu-jokabidea. Laguntza edo babesa emateak edo ukatzeak, beraz, haiek edukiko dituzten berezitasunak finkatuko dituzte.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar dugu, sarritan kontrakoa uste baldin bada ere, sexualitatearen garapena gainerako pertsona guztien oso antzekoa izaten dela, baina nolanahi ere, zehaztasun batzuk emango ditugu haiengan topa ditzakegun berezitasun batzuk nabarmentzeko:

**Naturaltasuna:** adimen-urritasuna duten pertsonek naturalago bizi dute beren sexualitatea eta lotsarik gabe adierazten dute, eta horren ondorioz, gerta daiteke horretarako aukeratutako unea eta tokia gizartearen ikuspegitik egokienak ez izatea.

**Zaurgarritasuna:** zaila egiten zaie arrisku-jokabideak aztertzea eta horiei modu egokian erantzutea, eta beraz, zaurgarriagoak dira horrelakoen aurrean.

**Komunikazioa:** nabarmendu beharreko harreman-muga batzuk izaten dituzte, eta nolabaiteko zailtasunak topatzen dituzte gainerakoekin harremanak egiteko, baita beren gurariak adierazteko ere.

Pongámonos en la piel de estas personas y pensemos por un momento que es a nosotros a quienes nos cohíben cualquier necesidad sexual y somos a menudo castigados por ello… ¿como nos sentiríamos? ¿Que haríamos al respecto? Si, muchas de las respuestas que nos vienen a la cabeza son fruto de algunas actitudes erróneas que les transmitimos y que no les proporcionan un escenario adecuado para poder satisfacer una de las necesidades vitales con naturalidad.

Una excesiva protección y aislamiento les dificultan las relaciones sociales de las que necesitamos todos, reprimiendo cualquier acercamiento y obstaculizándoles el acceso a un area privada donde poder satisfacer sus necesidades

## ASPECTOS IMPORTANTES A TENER EN CUENTA

Una de las características esenciales de la sexualidad en individuos con discapacidad intelectual será la amplia heterogeneidad con la que nos encontramos. ¿De qué dependerán las diferencias que pueden aparecer?

En primer lugar,  estará condicionada por el grado de discapacidad intelectual de la persona en cuestión, puesto que dependiendo del tipo y nivel de minusvalía por la que se vea afectada, la expresión de la sexualidad será distinta.

En segundo lugar, serán las circunstancias sociales en las cuales cada una de estas personas se desenvuelva las que perfilen de nuevo su conducta sexual. La privación o concesión de ayuda y apoyo concretarán las particularidades con las que contarán.

Por otro lado, debemos tener en cuenta que, aunque a menudo se piense lo contrario,  este desarrollo de la sexualidad resulta muy parecido al resto de la población, no obstante daremos unas pinceladas que destaquen algunas de las peculiaridades que podemos encontrar:

**Naturalidad:** las personas con discapacidad intelectual viven de forma más espontánea su sexualidad y la expresan de una forma desinhibida, lo que puede provocar que el momento y el lugar no sean los socialmente apropiados para llevarla a cabo.

**Vulnerabilidad:** les resulta complicado examinar y responder de forma adecuada a las conductas de riesgo, quedando así más expuestos a ellas.

**Comunicación:** suelen darse unas limitaciones relacionales a destacar, donde experimentan ciertas dificultades a la hora de establecer vínculos con los demás, así como para comunicar sus intereses.

# Familiak_Familias




## AHOLKUAK ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT ETA BEREN INGURUNEARENTZAT

Egunez egun topatu ohi dituzten zailtasunak aztertu ondoren, eragozpen horiei zer irtenbide eman dakiekeen galdetzeko unea da orain, betiere adimen-urritasuna duten pertsonen sexu-eskubideak aitortu eta aldarrikatzeari begira. **Zer egin dezakegu, bereziki, beren ingurunekook?**

- Kalitatezko heziketa sexual eta afektiboa eskaini, pertsona horrek duen urritasun motaren eta mailaren arabera egokitua.
- Adierazpen afektiboen aurrean berdintasunezko jarrerak, errespetuzkoak eta toleranteak sustatu.
- Egon daitezkeen arrisku-egoeren balioespen egoki bat egiten erakutsi, horiekin loturiko erabaki egokiak hartzen lagundu eta, beharrezkoa denean, ezetz esaten jakin.
- Sexu-garapena erraztu eta intimitatearen kontzeptua azaldu, horretarako ingurune pribatu eta, batez ere, duin bat eskainiz.
- Gizartean integratu daitezela sustatu eta familiaz kanpoko beste harreman batzuk ere egin ditzatela lagundu.
- Berengan eragin handiena duten hurbileko pertsonek nolako jarrera duten ikertu eta, beharrezkoa izango balitz, horretan erakutsi.
- Pertsona hauek babestuta egon daitezela bermatuko duen sexu-higiene egoki eta osasungarri bat sustatu

## CONSEJOS PARA LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL Y SU ENTORNO

Una vez que hemos analizado las dificultades a las que pueden enfrentarse día a día, es el turno de plantearnos la solución a dichos obstáculos para reconocer y hacer valer los derechos sexuales en las personas con discapacidad intelectual. **¿Qué podemos hacer, especialmente, desde su entorno?**

- Proporcionar una educación sexual y afectiva integral de calidad, adecuada al tipo y nivel de discapacidad con la que la persona cuente.
- Fomentar actitudes de igualdad, respetuosas y tolerantes ante las expresiones afectivas .
- Enseñar a valorar adecuadamente las situaciones de riesgo que puedan acontecer, guiar en una correcta toma de decisiones al respecto y saber decir no cuando ello sea necesario.
- Facilitar su desarrollo sexual y explicar el concepto de intimidad, ofreciendo un entorno privado y, sobre todo, digno para ello.
- Fomentar su integración en la sociedad y ayudar a establecer vínculos más allá de los familiares.
- Indagar en la posición que mantienen las personas más cercanas e influyentes en ellos e instruirles si ello fuera necesario.
- Promover una correcta y sana higiene sexual que garantice la protección de estas personas.

### ULIAZPIN SARTU DIRENAK / INCORPORACIONES:

- **Alicia Cortés** (Zubillaga)
- **Iñaki Pombar** (Ategorrieta)
- **Iratxe Lopetegi** (Zubieta)
- **Teresa Lajas** (Ategorrieta)
- **Beatriz Cambronel** (Zubillaga)
- **Begoña Muela** (Egogain)

### BAJA EMAN DUTENAK / BAJAS:

- **Beatriz Gallego** (Ategorrieta)
- **Javi de Castro** (Fraisoro)
- **Jose Miguel Arocena** (Donostia)
- **Javier Bernal** (Zubieta)
- **Ane Urbieta** (Donostia)
- **Mª Luisa Hernández** (Fraisoro)
- **Julia Bereziartua** (Zubieta)
- **Mª Antonia Eizagirre** (Donostia)
- **Pili García** (Fraisoro)

# Gobernu batzordea
# Junta de gobierno



Apirilaren 26an eta urriaren 17an bi bilera arrunt egin ditu Gobernu Batzordeak.

Apirileko bilera horretan, onetsi egin zuten 2016ko kontuen itxiera, Uliazpiren inbentarioa, baita zaintzaile lanpostuetan aldi baterako zerbitzuen beharrak estali ahal izateko lan-poltsako zerrendak handitu eta/edo eguneratzeko prozesuaren deialdia arautuko duten oinarriak ere; eguneratu egin zuten Lanpostuen Zerrenda eta, halaber, Hezkuntza Unitate bati buruz Hezkuntza Sailari aurkeztutako proiektu baten inguruko informazioa eskaini zuten.

Urriaren 17ko bilkuran, berriz, onetsi egin dute 2018ko Aurrekontuen Aurreproiektua, baita gure zentroak garatzeko eta egoki funtzionatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzeko baldintza-orri desberdinak ere eta, bide batez, 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aurreikusitako adingabearen babeserako neurriak Uliazpin aplikatzeko jarraibideak. Lanpostuen Zerrenda eguneratzeari ere ekin diote, Gobernu Batzorde desberdinetan egin ohi den moduan.

El 26 de abril y 17 de octubre se han celebrado dos reuniones ordinarias de la Junta de Gobierno.

En la sesión del mes de abril, se aprobó el cierre de las cuentas del 2016, el inventario de Uliazpi, las bases reguladoras de la convocatoria del proceso de ampliación y/o actualización de las listas de la bolsa de trabajo para atender necesidades de prestación de servicios de caracter temporal en plazas de cuidador, se actualizó la Relación de Puestos de Trabajo y se informó sobre un proyecto presentado al Departamento de Educación sobre una Unidad Educativa.

En la sesión del 17 de octubre se ha aprobado el Anteproyecto de Presupuestos de 2018, así como distintos pliegos para la contratación de servicios necesarios para la prestación y el desarrollo de nuestros centros, y las instrucciones para la aplicación en Uliazpi de las medidas de protección del menor previstas en el artículo 13.5 de la Ley Orgánica 1/1996. También se procedió a la actualización de la Relación de Puestos de Trabajo como suele ser habitual en las distintas Juntas de Gobierno.

## MUGIKORTASUNA ETA KONTRATAZIO BERRIAK

Pertsonen aldaketak gertatu dira zentroen artean:

- **Mª Eugenia Merino:** Zubieta Zentrotik Donosti Zentrora.
- **Elena Chavarri:** Ategorrieta Zentrotik Zubieta Zentrora.
- **Fernanda Alfaro:** Zubieta Zentrotik Ategorrieta Zentrora

Era berean, barne promozioko lehiaketan gobernarien plazak gehitu dira:

- **Ainhoa Albizu** y **Ana Isabel González** en el Centro Fraisoro.
- **Yolanda Gallego** y **Virginia Merino** en el Centro Zubieta.
- **Ana Rollan** en el Centro Donosti.

Dr. Zubillagako Zentroko Arduradunaren lehiaketa egin ondoren, plaza hori ondokoen esku geratu da: **Jaione Basaras**

## MOVILIDAD Y NUEVAS CONTRATACIONES

Se han producido cambios de personas entre centros:

- **Mª Eugenia Merino**: del Centro Zubieta al Centro Donosti.
- **Elena Chavarri:** del Centro Ategorrieta al Centro Zubieta.
- **Fernanda Alfaro:** del Centro Zubieta al Centro Ategorrieta.

Así mismo, en el concurso de promoción interna se han adjudicado las plazas de gobernanta:

- **Ainhoa Albizu** y **Ana Isabel González** en el Centro Fraisoro.
- **Yolanda Gallego** y **Virginia Merino** en el Centro Zubieta.
- **Ana Rollan** en el Centro Donosti.

Tras el concurso de Responsable de Centro de Dr. Zubillaga ha obtenido plaza: **Jaione Basaras**




# ULIAZPI, URTERO BEZALA, ENPRESEN LASTERKETAN

# ULIAZPI, COMO CADA AÑO, EN LA CARRERA DE EMPRESAS

Maiatzaren 7an Uliazpiko 12 pertsonak ADEGIk antolatutako X. Enpresen Lasterketan parte hartu zuten.

Hiru taldeak mistoak izan dira. Talde horietatik lehena Ategorrieta Zentroko langileek osatu dute: Elena Chavarri, Ane Gastesi, Ignacio Iglesias eta Fernando Ramirez izan dira. Bigarren taldea, berriz, Zubieta Zentroko langileek osatu dute: Gurutz Albisu, Antxon Bello, Mª José Hernández eta Laura Moreno. Eta hirugarren taldea, Donostia Zentroko Lidia Astudillo eta Agustín Berezibar langileek eta Zerbitzu Zentraletako Marian Mendizabal eta Tomás Murua langileek osatu dute.

Lasterketa ezin hobeto atera da eta aukera paregabea izan da lankideak ezagutzeko. Aurten, aurreko urteetan bezalaxe, luxuzko animatzaileak izan ditugu gainera!

El 7 de Mayo, 12 personas de Uliazpi participaron en la X Carrera de Empresas organizada por ADEGI.

Los tres equipos han sido mixtos. El primero de ellos compuesto por los trabajadores del Centro Ategorrieta: Elena Chavarri, Ane Gastesi, Ignacio Iglesias y Fernando Ramirez. El segundo grupo ha estado formado por personal del Centro Zubieta: Gurutz Albisu, Antxon Bello,MªJosé Hernández y Laura Moreno. El tercer equipo lo formaron personal del Centro Donostia Lidia Astudillo y Agustín Berezibar y por Marian Mendizabal y Tomás Murua de Servicios Centrales.

La carrera ha sido un éxito y una buena ocasión para conocer a compañeros/as de trabajo. Éste año, como todos los años anteriores, hemos contado con unos animadores de lujo!



# Uliazpiko senitartekoen batzarra 2017

# Asamblea de familiares de Uliazpi 2017





Aurtengo Senitartekoen Batzarra KURSAAL Biltzar Jauregi eta Auditorioan egingo da (2. aretoan), Donostiako Zurriola Hiribideko 1 zenbakian, zerbitzua sortu zeneko 50. urteurrena dela eta.

Batzarra datorren abenduaren 16an izango da, larunbatarekin, goizeko 11:00etan. Aurten Pere Ruedak parte hartuko du; adimen-urritasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuen alorrean ibilbide profesional handiko psikologoa da bera, eta adimen-urritasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuen bilakaera historikoari buruzko hitzaldi bat emango du. Gainera, musika-emanaldi bat izango dugu eta omenaldi bat egingo zaie 2017an erretiroa hartu berri duten pertsonei. Amaieran aperitibo bat eskainiko da.

Beste urte batzuetan bezala, gutun bat bidaliko zaizue gonbidapenarekin. Bertan elkar ikustea espero dugu!

Este año la Asamblea de Familias se celebrará en el Palacio de Congresos y Auditorio KURSAAL (sala nº 2), que está situado en la Avenida de la Zurriola 1 de San Sebastián, con motivo del 50 aniversario de la creación del servicio.

La Asamblea será el próximo 16 de diciembre, sábado, a las 11:00 horas. Este año contaremos con la participación de Pere Rueda, psicólogo con una gran trayectoria profesional en el ámbito de los servicios dirigidos a personas con discapacidad intelectual , que dará una charla sobre la evolución histórica de los servicios dirigidos a las personas con discapacidad intelectual. Además, contaremos con una actuación musical y el reconocimiento a las personas  que en 2017 se han jubilado. Al final se servirá un aperitivo.

Como otros años, se os enviará una carta con la invitación. ¡Contamos con vuestra presencia!

## Zorionak Uliazpiaren historiako atzoko eta gaurko parte-hartzaile guztioi

Zorionak a todos los que ayer y hoy forman parte de la historia de Uliazpi

*Beste 50 urte gehiago bete ditzagula!*
*¡Por otros 50 años más!*



ULIAZPI

Uliberriren hogeigarren zenbaki hau prestatzen aritu gara / En la elaboración de este vigésimo Uliberri hemos participado: *Peio Arnaez, Nerea Basurko, Lourdes Fernández, Aloña Ganboa, Alicia García, María Hernández, Josune Martinez, Pako Mendizabal, Alberto Merino, Laura Sánchez eta Lydia Roldán.*

Gainera, honakoen laguntza eskertu nahi dugu / Además, agradecemos la colaboración de: *Jaione Basaras, Cristina Blanco, Ana Condón, Victor Larrinaga y Virginia Merino.*